

ELIKA FUNDAZIOAK RECIRCULAR ALIMENTACIÓN aurkeztu du, elikagai-soberakinak errebalorizatzen lagunduko duen tresna digitala

- Ekimena Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sustatutako Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskal Estrategiaren barruan sartzen da.
- ELIKA Fundazioaren eta Recircular startup-aren arteko lankidetzaren emaitza da, zeinak elikagai-soberakinak ekonomikoki balorizatzea duen xede.
- AA bidez sustatutako plataforma digitala da, elikagai-soberakinak sortzen dituzten enpresek errebalorizatu ahal dituztenekin lotzen dituen.

2022an, Eusko Jaurlaritzak, Erika Fundazioaren bidez, “*Elikagaien Xahuketaren Analisia Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Katean*” txostena aurkeztu zuen, non nekazaritzako elikagaien euskal sistemako ehundaka enpresak parte hartu zuten. Elikagaien xahuketa beraz gain, azterlanak “*aprobetxa daitezkeen materialak*” identifikatu zituen (elikadurako beste zatiki batzuk, azpiproduktuak, hondakinak, etab.), ekoizpen- eta eraldatze-faseetan kuantifikatuta; urtean 230.000 tona baino gehiago ziren.

Horrek Euskadiko nekazaritzako elikakatea hobetzeko aukera handia ematen du; izan ere, produktuak hobeto balorizatzeko formulak bilatu behar dira, kateko eragile guztientzako balio erantsia sortzeko, Ekonomia Zirkularraren ereduaren oinarrituta.

Behar horretatik abiatuta sortu da RECIRCULAR ALIMENTACIÓN, Euskadiko RECIRCULAR startup-arekin egindako lankidetzaren emaitza; RECIRCULAR ALIMENTACIÓN lineako plataforma da, industriako soberakinak errebalorizatu ahal dituztenekin lotzeko. Orain kategoria espezifiko bat sortu da nekazaritzako elikagaien enpresentzat. Hala, enpresek aprobetxatu gabe geratu zaizkien baliabideak ikusgarri egin ahal izango dituzte, eta, algoritmo baten bidez, balioztatzekeo interesa izan dezaketenei automatikoki jakinaraziko zaie.

Plataformaren funtzionamendua

Plataforma ingurune profesionala da, enpresek izena eman eta beraien soberakinei doan altan eman diezaieten. Baliabideei buruzko informaziotik abiatuta, adimen artifizialak berrerabili eta birziklitzeko aukerak identifikatzen ditu, eta automatikoki jakinarazten die kontsumitzaileak izan daitezkeen enpresei. Hala, enpresetan aprobetxatzen ez diren baliabideei ikusgarritasuna ematen zaie, eta balorizazio-prozesuei trazabilitatea eta gardentasuna.

Gainera, enpresek aurrezki ekonomikoak eta ingurumenta gizarte arloko onurak sortzen dituzte, RECIRCULARen Eragina Neurtzeko Metodologiaren bidez neurtzen direnak. Hala, karbono-aztarna murrizteko, ura eta energiaren kontsumoa murrizteko eta giza-osasuna hobetzeko adierazleak kalkula daitezke. Erabiltzaileek transakzio bakoitzaren eragin-txostenak, adierazle horien kalkuluak biltzen dituztenak, deskarga ditzakete.

<https://recircular.net/recursos/agroalimentacion-y-bebidas>

Informazio gehiago: Arantza Madariaga 945122170

Gasteiz-en, 2025. Otsailak 19